

## Konferentzia Parag Shah-ren eskutik Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatean.

2014/03/27

Ostegun honetan, martxoak 27 arratsaldeko 16:00etan Enpresagintzan Oñatin eta astelenean, martxoak 31a, arratsaldeko 17:00etan Bilbao Berrikuntza Faktorian, Parag Shah(Pune, India) irakaslearekin ikasteko aukera izango dugu, berak ekintzailetasunaren hezkuntzari buruz duen ideiaz eta enpresek gaur egun dituzten beharretaz ekintzailetasunaren munduan.

Parag Shah irakaslea ekintzaile oso-osoa da, gaur egun MIDAS eskolaren mentore garrantzitsuena. Eta bertan LEINN graduko ikasleak ari dira egiten beren egonaldia aurten Indian. MIDAS, Negozio, Berrikuntza, Diseinua, Arteak eta Zientzia Sozialen akronimoa da. Organizazio hau eremu hoietako proiektuak bultzatzen dihardu. Midas-en bisioa 10.000 ekintzaile sortu eta osasuna, hezkuntza eta ongizatearen eremuetan 500 lanpostu sortzea litzateke era berean.

Parag Shah-ek MIDAS-en lan egiteaz gain beste aktibitate batzuetan ere dihardu, adibidez FLAME University-ko kontseilari eta fundatzaileetako bat da (Foundation for Liberal and Management Education). Horretaz gain Oxford Golf konplexuaren zuzendaria da, Asiako bigarren haundiena eta Indiako hoberenetako bat. Bere lanerako pasioa delata, hainbat kolaborazio bultzatu ditu ekintzaile moduan, beraien artean argazki denden kate bat, Nestle-ren vending banatzaile haundiena izatea eta hainbat eraikuntza proiektu.

Parag Shah-ek ekintzailetasunean hezkuntza ikusteko modua aldatu du, Estrategia, Pentsamendua Kritikoa eta Berrikuntza bere kurtsoetan txertatuz.

